Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4708

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 23koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Fulgencio Aledo Amorós jauna Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Giza Baliabideen zuzendariorde izendatzeko dena.

Aztertuta geratu da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2009ko ekainaren 19ko Ebazpenaren bidez 2009ko uztailaren 2ko EHAAn (125. zk.) argitaratutako deialdia, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Giza Baliabideen zuzendariorde postua betetzekoa zena.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eskainitako lanpostuan jarduteko izangaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, haien ezaugarri profesionalak curriculum vitae-an azaldutako merezimenduen arabera baloratuz.

Aurkezturiko agiriak aztertuta, Fulgencio Aledo Amorós jauna eskainitako posturako egokia dela eta postu horretan jarduteko moduko gaitasuna baduela ikusi da.

Horiek horrela, ondorengo hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Fulgencio Aledo Amorós jauna Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Giza Baliabideen zuzendariorde izendatzea (512006 kodea, 2. dotazioa).

Bigarrena.– Izendapenak 2009ko uztailaren 28tik aurrera hartuko du indarra, EHAAn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Hirugarrena.– Deialdia ebatzi eta administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 23a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

4708

RESOLUCIÓN de 23 de julio de 2009, de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se nombra a D. Fulgencio Aledo Amorós para desempeñar el puesto de Subdirector de Recursos Humanos del Instituto Vasco de Administración Pública.

Vista la convocatoria para cubrir el puesto de Subdirector de Recursos Humanos del Instituto Vasco de Administración Pública, publicada en el BOPV n.º 125, de 2 de julio de 2009, mediante Resolución de 19 de junio de 2009, de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública.

Resultando que, finalizado el plazo de presentación de solicitudes, ha sido estudiada la documentación presentada por los/las aspirantes al desempeño del puesto de que se trata, habiéndose valorado sus condiciones profesionales conforme a los méritos aportados en el curriculum vitae.

Considerando que, a la vista de la documentación presentada, D. Fulgencio Aledo Amorós se adecua al perfil convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo.

En virtud de cuanto antecede,

RESUELVO:

Primero.– Designar a D. Fulgencio Aledo Amorós como Subdirector de Recursos Humanos del Instituto Vasco de Administración Pública (código 512006, dotación 2).

Segundo.– El presente nombramiento surtirá efectos a partir del 28 de julio de 2009, sin perjuicio de su publicación en el BOPV.

Tercero.– Contra la presente Resolución que resuelve la convocatoria, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de julio de 2009

La Directora del Instituto Vasco de Administración Pública,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.